

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2024ko AZAROA · 338 zenbakia

Mikel Kaye *Miñan antzezlanean*





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarron ahotik

Gaia: Saski-naski

Ermuko Biribilketa

(Entzuteko: www.alboka.es)

Re si re si re mi re si
re do si la mi re si,
re si re si re mi re si
re do si la do si (bis).

La si do si la si do re
si do re mi fa mi re,
la si do si la si do re
mi re do si la si (bis).

Sol mi mi re do
do si do re do la si re fa,
sol re re do si si la si do
si la sol do mi.

Sol mi mi re do
do si do re do si la,
la si do re do la
sol do mi do
si re fa mi re do
(bis).



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ainhoa Resano.

LAGUNTZAILEAK:

Begoña Fernández, Patxi López,
Valentin Mugarza eta San Pelayo
Ikastetxea.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola, Txelu Angoitia,
Klemen Corredera, Agurtzane
Delgado, Estibalitz González, Martzel
Gorritxategi, Valentin Mugarza, Iñaki
Moreno, PainApple, Mika Xabier
Ribeiro, Nahia Ruiz Albizuri, Carmen
Solozabal, Dorleta Vidal eta Eva
Zubizarreta.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Martzel Gorritxategi Areitioaurtena · Mexiko

“Hemen egin ditudan lagunak oso gertukoak eta eskuzabalak dira”

Lau hilabete daramatza etxetik kanpo Martzel Gorritxategi ermuarrak, Yucatán penintsulako hiriburua eta bertako hiririk populatuena den Mérida hirian (Mexiko), hain zuzen ere. Denbora aprobetxatzeko nahiak bultzatuta, Yucatán inguruan dauden bazterrek ezagutzeko irteerak egiten ditu ahal duen guztietan.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Non bizi zara?

Orain Méridan, Yucatánen nago, Mexiko herrialdean.

Zergatik eta noiz joan zinen?

Iaz unibertsitateak mugikortasuna egitea proposatu zigun eta nik Latinoamerikara joateko gogoia nuen. Eskainitako aukeretatik Mérida iruditu zitzaidan deigarriena, eta abuztuaren 1ean ekin nion bidaiari.

Erabaki zaila izan zen?

Ez. Egia da aldaketa handia dela, baina familiak eta lagunak beti animatu izan naute.

Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Egia da saiatu nintzela espektatiba asko gabe etortzen.

Badaezpada, dena idealizatuta ez izan eta dezepziorik ez eramateko. Hala ere, espero nuen egunerokotasuneko bizitza merkeagoa izatea.

Zerbaitek harritu zintuen bertara heltzean?


Aireportutik irten eta egiten zuen beroak, gainera sekulako hezetasuna dago. Horrez gain, oso deigarria

“Hegazkinetik jaitsi nintzenean, hemengo beroak eta hezetasunak harritu ninduen”



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN



JULEN IZARRA GARRAIOAK

**Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339**

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



iruditzen zait hemengo jendearen adeitasuna: beti daude laguntzeko prest.

Nolako da hango jendea?

Oso atsegina. Gure ikaskideak eta ezagutu ditugun beste lagun batzuk ere orokorrean oso gertukoak eta eskuzabalak dira. Hala ere, klase sozialen artean desberdintasun oso handia dago.

Zein da janari tipikoa?

Takoak, *burritoak*, *tortak* eta horrelakoak Mexiko osoan aurki daitezke. Baina hemen, Yucatánen, *panuchoak*, *salbutak*, *eloteak*, *cochinitak*, *tamalak* eta *marquesitak* dira ohikoak.

Gaztelaniaz gain, beste hizkuntzarik hitz egiten da bertan?

Hemen, Yucatánen, maia hizkuntza existitzen da. Ez da gehiegi hitz egiten, herri txikietako jende nagusiak erabiltzen du, batez ere.

Zer egiten duzu aisialdian?

"Panuchoak, salbutak, eloteak, cochinitak, marquesitak eta tamalak dira ohikoak hemen"

"Denbora gehiago aprobetxatzeko mentalitatea daukat hemen, beti daukat zerbait egiteko"



Martzel Gorritategiren atzean Tehotihuacan arkeologia gunea, Mexiko Hiritik 40 kilometrotara dagoena.

Hondartzara joan, eguzkia hartu, gimnasia joan... Horrez gain, asteburuetan plan asko egiten ditugu hemendik zehar bidaiatzen: egun batzuk libre ditugunean, Mexikoko lurralde ezberdinetara bidaia txikiak egiten ditugu.

Hango planek hemengoekin zerikusia dute, edota desberdinak dira?

Desberdinak direla esango nuke. Behin hemen egonda beste mentalitate bat daukagula uste dut: denbora gehiago aprobetxatzekoa. Beti dago zerbait egiteko eta egunak aprobetxatzeko gogoia, horregatik edozein asteburutan Méridatik irteten saiatzen gara inguruak ezagutzeko.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak batez ere: gertuko jendearekin egotea. Baita etxeko janaria, kalera irten eta tortilla pintxo bat jatea, poteoa...

Noiz Ermura buelta?

Ikasturte osoa hemendik ibiliko naiz, beraz, ekainean segur aski.

“Kontatzen ez den egia bat azaleratzen lagundu dezake *Miñanek*”

Mikel Kaye Goikoetxea · Aktorea



Azaroaren 29an, ostirala, *Miñan* antzezlana eszenaratuko du Ermua Antzokiak. Amets Arzallus kazetariak idatzitako liburu homonimoan oinarritutako lana da, Ibrahima Balde ginearraren historia kontatzen duena: gordina bezain erreala, eta Artedrama plataformaren sinadura dauka, Ander Lipus aktore eta zuzendaria proiektuburu. Antzezle-zerrendari erreparatuta, arte dramatikoko ikasketak bukatu berri dituen Mikel Kaye (Ermua, 2001) aktorea dago.

Testua **DORLETA VIDAL**

Urriaren 25ean estreinatu zenuten *Miñan* Bilboko Arriaga Antzokian, eta ordutik 24 bider taularatu duzue, gehienetan "sarrerak agortuta" kartela ipinita...

Bai, harrera oso ona du! Dena den, Arriagako emanaldia ez zen lehena izan, Luhuson (Lapurdi) egin genuen aurrestreinaldia, urriaren 17an eta 18an.

Goi mailako antzerki taldea eta zuzendaria dago *Miñanen* atzean. Nola lortu zenuen proiektura batzea?

2022ko udan Artedrama taldeko zuzendaria den Ander Lipus ezagutu nuen, Lekeition burutu zen antzerki tailer batean. Galdera pilo bat egin zizkidan, ordurako, seguruenik, proiektu hau buruan zuelako. Urtebete geroago nirekin jarri zen harremanetan, antzerki honen berri emateko eta lana eskaintzeko.

Nola hartu zenuen proposamena?

Hasieran ezin nuen sinetsi! Harrituta geratu nintzen! Hortik aurrera, lantaldea ezagutu eta urte eta erdi eman dugu entseatzen: bi hilabetetik behin astebeteko egonaldia egin izan dugu elkarrekin, gero zazpi eta hamar egunekoak, eta azkena hamazortzi egunekoak.

***Miñanek* ("anaitxo" Ginea Conakryko pula hizkuntzan) Ibrahima Balde ginearraren historia erreala taularatzen du, anaitxiaren bila egiten duen bidaiaren gorabeherak jasoz. Kontakizun gogorra da, eta migrazioa beste begi batzuekin ikusteko aukera ematen du...**

Artea erremintatzen daukat, eta uste dut *Miñanek* lagundu dezakeela, neurri batean behintzat, kontatzen ez den egia bat erakusten. Diskurtso arrazistak eta faxistak hedatzen ari diren honetan, momentu aproposa da horrelako historia eszenara ekartzeko. Antzezlanak gizakion emozioei dei egiten die, tresna bat izan daitekeelako migrazioa humanizatzeko edo txarto deitutako krisi humanitarioaren inguruan zabalitzen ari diren gezurrak ezeztatzeko, eta hausnarketa sustatzeko. Horrek asko motibatzen nau.

***Miñan* liburuak irakurrita zeneukan?**

Ez, baina amak bai, eta irakurri zuenean esan zidan guk oso ondo ezagutzen genuela liburuak jasotzen duena: nire aitaren historia eta Ibrahimarena oso-oso antzekoak dira, eta oso gertutik harrapatzen nauen gaia da. Txikia nintzenean Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketa irabazi nuen, *Paradisura bidaiak* izenburuko ipuinarekin: nire aitaren bidaiaren zati kontatzen nuen bertan.

Ondo moldatzen zara gai dramatikoekin?

Sambou Diaby aktoreak egiten du Ibrahimaren papera, eta gainontzeko hiru aktoreok (Ander Lipusek, Eihara Fernández de Larreak eta nik neuk) 15 eta 20 pertsonaia artean egiten ditugu bakoitzak. Antzerkiaren mamia tragedia dela esango nuke, edo are gehiago, odisea, baina ikuskizunean kode ezberdinak erabil-



Ezkerretik hasita, Sambou Diaby, Eihara Fernández de Larrea eta Mikel Kaye. AINHOA RESANO

tzen ditugu, egoera ezberdinetara egokitutakoak, eta haietako batzuk arinak dira. Benetako erronka izan da horrenbeste pertsonaia antzeztea: batzuk esaldi bat esaten dute, eta esaldi bakarrean pertsonaia gorpuztu eta indarra eman behar diozu.

Zer ikusten duzu argiak pizten direnean?

Publikoa oso hunkituta dagoela. Antzerkiak bi plano ditu: bat narratiboagoa (Ibrahimak berak historia kontatzen du lehen pertsonan) eta bestea ekintzaren planoan (beste hiru aktoreok egiten duguna). Publikoarekin harremana sortzen da hasieratik, eta hori oso polita da, ikusleek ulertzen dutelako benetako historia ikusten ari direla.

Ibrahima Balde ezagutzeko aukera izan duzu?

Bai, gaur egun Madrilan bizi da, baina Arriagako estreinaldira etorri zen. Azken 15 minutuak ikusi zituen, Amets Arzallusek babestu nahi izan zuelako, haren zauriak berriro ez zabaltzeko, eta bukatutakoan afaltzera joan ginen guztiok elkarrekin. Oso gustura

egon nintzen.

Amets Arzallus bera ere inguruan izan duzue hasieratik, ezta?

Bai, entseatzeko egin ditugun egonaldi guztietan etorri izan da, eta bukatutakoan Lipusekin biltzen da, ekarpenak egiteko. Uste dut antzerkiko hiru zuzendariak (Philippe Ducouk, Manex Fuchsek eta Ander Lipusek) oso ondo jakin izan dutela Ametsen liburua antzerki-hizkuntzara egokitzea.

Azaroaren 29an Ermura etorriko zara Miñan aurkeztera. Nola sentitzen zara?

Sekulako gogoia daukat! Ez da Ermuan aurkeztuko dudana lehen lana, baina oso berezia izango da, antzerki honek jende asko mugituko duelako. Badakit egunean bertan oso urduri egongo naizela, baina oso polita izango da publikoan aurpegi ezagunak ikustea. Sarre-ra asko saldu dira, jada, eta zoragarria izango litzateke euskarazko antzerki batekin Ermua Antzokia betetzea, gainontzeko antzokietan egiten ari garen bezala.

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Badira 50 urte Ermuko emakumeak esnatu zirela

Emakumea Sustatzeko Zentroa 1970. urtean sortu zen, Ongarai auzoan. Herriko milaka emakumeren ahalduntzea bultzatu eta gero, VI Mendeurrena kalean zegoen egoitzaren ateak betiko itxi ziren 2013an, 43 urteko ibilbidea eta gero. Egunotan Ermuko Zentroaren 50. urteurrena ospatuko da, bertako Ikasle Ohien Elkarteko kideek antolatuta, eta tartean bazkari herrikoia eta dokumental bat estreinatuko da abenduaren 1ean: *Cuando espabilamos*.

Testua **DORLETA VIDAL**

Hirurogeita hamargarren hamarkadak aldaketa ugari ekarri zituen, bai esparru politikoan bai gizarte mailan ere, eta Ermuan gerora hain oparoa izan den mugimendu eta elkarte ezberdinen sorrera gauzatu zen. Tartean, emakumearen ahalduntzea helburu zuten ekimena martxan jarri ziren eta emakumeek gizarte mailan konpromisoak hartzen ikasi zuten, jarrera aktiboak hartzen eta euren historia propioaren protagonista izaten.

Eraldaketa hau Emakumea Sustatzeko Zentroaren babesean egin zen, bertako ikasle ohiak azaldu dutenez: "Hasieratik, eskolaurreen autoantolaketarekiko konpromisoa hartu genuen, 1971n, Begoña Aginagarekin; eta 1972 ilun hartan, eskolak exijitu genituen, gure herriak pairatzen zuen eskola antolaketaren penagarriari aurre egiteko".

Antolatu eta "esna" zeuden emakume haietako askok Familien El-

karteko kide izan ziren, eta borrokatu zuten herriko argiztapena eta asfaltatzea lortzeko, putetxeak ixteko, lur azpiko pasabideak eta anbulatorioa eraikitzeko... "Mugimendu feministarekin ere aliantza estrategikoak ezarri genituen —gogoratu dute Zentroko ikasle ohiak—, izan ere, garai hartan emakumeok ez genuen inolako eskubiderik, dibortzioa ez zen existitzen eta abortua ilegala zen (...)".

Zentroa, ezinbesteko tresna

Testuinguru horretan, Zentroa lagungarria eta —askorentzako— ezinbesteko tresna izan zen euren izaera eta autoestimua sendotzeko, maila kulturala handitzeko, irteera kulturalak egiteko, zaletasunak aurkitzeko, titulu ofizialak eskuratzeko eta kualifikazio pertsonala handitzeko. Prozesu horretan bidelagun izan zituzten besteak beste Zentroko zuzendariak izan ziren Miren Gerrickagoitia hasie-



ran, Ikerne Arzuaga 80. hamarkadan hasita, eta Mariasun Ramos, 2001etik aurrera. Eta haien ondoan izan ziren ere irakasle, formatzaile eta ume-zaintzaile ugari.

2013an Bizkaiko Zentro guztiak itxi ziren, Ermukoa barne, eta horrek protesta-ekintza ugari ekarri



Zentroaren lehen urteetan egindako txangoan ateratako argazkia, Zorrotzako RAM esne lantegian. CARMEN SOLOZABAL

zituen. Aldarrikapenak alferrik izan ziren, eta ordutik, VI Mendeurrena kaleko lokalak hutsik daude. Ordu-tik ere, 80. hamarkadaren bukaeran sortutako Ikasle Ohien Elkarteak ahaleginak egiten ditu Zentroa eta haren oroitzapena bizirik mantentzeko, eta orduan sortutako emakume-sareari eutsi diote.

Atzeratutako urteurrena

1995ean, Zentroaren 25. urteurrena ospatu zen, eta 2020an 50. urtemuga ospatzeko asmoa zeukan aipatutako Elkarteak (Zentroa jada itxita zegoen arren). Pandemiaren eraginez, ordea, bertan behera geratu ziren aurreikusitako ekintza guztiak, eta lozorroan izan dira orain arte.

>>> Ikasle Ohien Elkarteak ahaleginak egin ditu Zentroaren oroitzapena bizirik mantentzeko eta orduan sortutako emakume-sareari eusteko

2024ko azken txanpa honetan, 170 ikasle ohik bazkari herrikoia egingo dute Merkatu Plazan azaroaren 30ean, larunbata. Hurrengo egunean, bestalde, Zentroaren inguruan jardun zuten emakumeen testigantzak jasotzen dituen dokumentala estreinatuko da Ermua Antzokian 12:00etan, *Cuando espabilamos* izenburua duena. Emanaldia herritar guztiei zabalik dago eta sarrera doakoa izango da. Doku-

mentalaren egileak Iratxe Ugalde, Klemen Corredera eta Sonia García ermuarrak izan dira, eta Ermuko Udalaren Berdintasun Sailaren babesa izan du.

Azkenik, erakusketa egingo da 2025eko martxoaren lehen hamabostaldian Lobiano Kulturgunean, *Cuando espabilamos* izenburupean. Bertan, aukera egongo da Emakumea Sustatzeko Ermuko Zentroaren historia irudietan ikusteko.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pernod Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

arral@arra97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINO
nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

XXIV. San Martin



Azoka

Euskal Birusa Elkarteak antolatua.
Argazkiak: Dorleta Vidal.



Probaleku 8, behea · ERMUA
943 17 01 43 · 943 17 18 02
ermua@altaldi.com

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

SAN MARTIN AZOKA: SARIAK

Jarraian aipatuko ditugun kideek osatu dute aurtengo epaimahaia: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobidek, Idiazabal Gazta-Izendapeneko Bittor Rodríguezek, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Torrikak, Euskal Biruseko Asier Ibaibarriagak, herriko ordezkaria izan den Aitor Ogizak, eta Ermuko Udaleko Arri Araiztegik. Beheko argazkian, epaimahaikide eta saritu guztiak.



FRUTA ETA ORTUARIAK

1. saria:
M^a Pilar Mallabia
(Agarre-Mallabia).



FRUTA ETA ORTUARIAK

2. saria:
Argiñe Rubio
(Txillarre-Elgoibar).



GAZTA

1. saria:
Patxi Baskaran
(Markina).



GAZTA

2. saria: Eñaut
Gallastegi
(Onandi-Mallabia).



OGIA

Luis Mari Osa
(Mañe-Mallabia).



TXILAR EZTIA

Garikoitz
LLona
(Zornotza).



MILA LORE EZTIA:

Igor Merino
(Barakaldo).



SAGARDOA

Jose Antonio
Bilbao
(Axpe-Markina).



TXAKOLINA

Amaia Aretxabaleta
(Lezama).



AIPAMEN BEREZIA

Jose Antonio
Fernandez
(Buenos Aires-
Ermua).

Aitor Ogiza, epaimahaikidea:

"Egun zoragarria pasatu nuen!"

Euskal Birusari eta euskarari lotuta aspaldidanik, Aitor Ogiza ermuarra izan da herriko ordezkaria San Martin azokako epaimahaian.



Aitor Ogiza, eskumatik hasita bigarrena.

Nola jaso zenuen epaimahaikide izateko proposamena?

Sorpresa izan zen, ez nuen inondik inora espero. Hasieran ezetz esan nuen, baina janari kontuak gustatzen zaizkit eta azkenean animatu nintzen.

Zer produktu dastatu zenituen azoka egunean?

Ogia, gazta, eztia, txakolina eta sagardoa. Aurretik epaimahaikideek buelta bat egin genuen postuak ikusteko eta haiek baloratzeko, eta gerora dastatu behar genituen gaiak jaso genituen.

Elikagai horietan adituak direnen azalpenak entzun zenituen gero. Zerbait ikasteko aukera izan zenuen?

Bai, oso interesgarria iruditu zitzaidan, batez ere gazta eta eztia nola ebaluatu eta zeri begiratu behar zaion komentatu zutenean.

Nola baloratzen duzu esperientzia hau?

Oso esperientzia polita izan da, zoragarria! Hasieran beldur apur bat eman dezakeen arren, ezjakintasunagatik, adituek gidatzen dute saioa, eta zure lana entzutea eta iritzia ematea da, besterik ez. Ikasteko aukera polita da!

SAN MARTIN AZOKAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA: SARIAK

Hogeita hamasei dendek eta tabernek apaindu dituzte beraien erakusleiho eta mostradoreak, herria bera nolabait dekoratuz. Eskertzekoa egindako ahalgina! Lehiaketa honetako epaimahaia honakoek osatu dute: Almu Maeso artistak, Nerea Ortega arkitektoak, eta Estibalitz González Euskal Birusako ordezkariak.

1. saria

Anboto burdindegia

Epaimahaia baloratu du perspektiba efektua sortzen jakin izatea figura eta atzealdearekin jokatuz, eta dendaren produktuak erakusleihoko sortzeko aitzakia bihurtu izana.



2. saria

Karabixa taberna

Epaimahaia baloratu du apaindutako lau erakusleihoen dotoretasuna eta espazioarekiko egokitasuna, ondo definitutako detaileen bidez konposizio orekatua eta harmonikoa lortuz.



ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
 info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
 660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

EUSKAL JANTZIEN ARGAZKI LEHIAKETA



Irabazleak:
Alazne Lopez,
Irene Aranberria
eta Peio Lopez.

KALABAZAREN PORRA



360 apustu egin dira aurten, eta bi lagunek asmatu dute haren pisua: Xabi Iriondok eta Amets Re-ciok (17,60 kg.). Bakoitzak 126 euroko saria jaso du.


TXERRIAREN ERRIFA

1. saria:
400 euro (txerriaren balioa).
Zorion Gorritxategi (0847 zenbakia).



2. saria:
Bi lagunentzako aste-buru pasa landetxe batean.
Eider Gorritxategi (1.659 zenbakia). Maria Jesus Arrondo amak jaso zuen saria bere izenean.





AUTO ESCURDIA
MECANICA-ELECTRICIDAD

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

**Trastelekuak
partikularrentzat**



**Biltegiak
enpresentzat**

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com



DG
Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



HERRI-LANAK MAGIA BIHURTU ZUEN SAN MARTIN AZOKA

Azokaren lelo bihurtutako “Ez da magia, herri-lana da” esaldia zentsuz beteta, ehunka kontatzen dira auzolanean musu-trukeko laguntza eskainiz jardundako herritarrak, bai egunean zehar zein haren aurretiko askotan: eguna gauzatu dute 387 norbanako eta elkarrek, eta 97 erakundek, dendek, tabernek eta enpresek.

Laguntzaileak izen-abizenez zerrendatzeko ohitura izan dugu orain arte, baina jaiak hartu duen dimentsioari erreparatuta, lantaldeka jasotzea erabaki dugu, aritutako pertsonen kopurua batuz. Doala hemendik Euskal Birusa Elkartearen esker on zintzoena, txiki edo handi izan, lagun askoren ekarpenak San Martin aurrera ateratzea ahalbidetu duelako. Eta azkenean guztiok apur bat emanda, denok parranda!

- 40 ekoizle
- 40 lagun batzordeetan
- 19 talde eragilean
- 66 talogintzan
- 55 Txikurixetan
- 95 muntaian, desmuntatze-lanetan eta trasladoan
- 12 tiket salmentan eta kalabaza-porran
- 16 saiheskia erretzen
- 2 buruko zapiak jartzen
- 51 musikari
- 17 artisau
- 4 ikastetxe
- 4 epaimahaikide
- 13 norbanako eta talde
- 5 udal, erakunde eta enpresa
- 56 taberna eta dendetan errifak
- 36 erakusleio apainduta

*Eskerrik
asko!*





ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarte
hedabidea

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Lurrari lotuak

MIRIAN ARRIZABALAGA ETA IÑAKI ANSOLA BARATZEZAINA ETA ARTZAINA

Elgoibarko Mausitxa baserrian elkartu ditugu Mirian Arrizabalaga eta Iñaki Ansola baserriko jardunaz eta lehen sektoreaz berba egiteko. Bere garaian, biek ala biek erabaki zuten baserriko jardunari segida ematea eta halaxe bizi dira orain, lurrari eta eguzkiari lotuak.

Testua: Egoitz Unamuno.

Argazkiak: Gurutze Ariznabarreta.

Udazkena da, neguaren ataria. Zein lanetan diharduzue garai honetan? **Mirian Arrizabalaga:** Esango nuke kontrako bidean gaudela (barreak). Ni, berez, denboraldi gogorrena bukatzen. Udako landaketa denak garbituta, negukoak landatuta eta orain ongarrri berdeekin hastekotan.

Iñaki Ansola: Gu, guztiz kontrara. Guretzat ikasturte hasiera modukoa da. Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusio garai bat. Hasten dira arkumeak jaiotzen eta ziklo dena jartzen da martxan. Ardiez gain badauzkagu behi batzuk ere eta laster hasiko gara barrura sartzen. Horrek lana gehitzen du.

Nola antolatzen duzue eguna?

M.A.: Azaroan gaude, eguna dezente moztu du eta lurrera joateko argitasuna behar dut. Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako. Beraz, garaiotan pixkat berandutxoago mugitzen gara. Egunean banaketa egitea tokatzen bada, uzta biltzen aritzen naiz, eta eguraldiak uzten baldin badu, azkenengo ereinketak egiten.

I.A.: Orduan oporrak hartzeko moduan orain, ezta?

M.A.: Hiru egun hartu ditut, oraingoz. (Barreak)

I.A.: Ni egun batean jaikitzen naiz zazpiretan eta hurrengoan goizeko bostetan. Ez dut izaten ordutegi finkorik jaikitzeko eta ezta oheratzeko ere. Goizean jaio diren arkumeak organizatzen ditugu. Arkumeren bat goseak baldin badago, esnea eman... Errapeak zaindu eta jaten eman ardiei... Kanpora atera... Oherako ere ez daukagu ordurik. Atzo gaueko hamarretarako ohean nengoan, baina goizeko ordu-



“Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako”

“Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da”

“Lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan”

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA ITZIAR, 1983
Doniene Haundi baserrian jaioa. Ikasketaz ingeniari teknikoa da, eta 2009an ekin zion profesionalki baratzagintza ekologikoari. Duela hamabi urtetik, Biolurreko lehendakaria da eta Amillubi proiektuko zuzendaritzako kidea ere bada.



“Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusioz betetako garai bat da”

“Erosten duen horri erakutsi behar diogu lurrari lotutako abeltzantza egiten dugula”

“Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun”

IÑAKI ANSOLA SALEGI ELGOIBAR, 1984

Mausitxa baserrian jaioa. Goi mailako ziklo bat ikasi zuen Fraisoro nekazal eskolan. 2004an ekin zion artzaintzan eta gaztagintzan profesionalki lan egiteari eta harrezkero bertan dihardu.

bietarako kortan ardiekin. Gogorra izaten da, baina niretzat ilusioz betetako garai bat da. Lan askokoa, baina dotorea.

Gainerakoan, nolakoa ari da izaten 2024. urtea?

M.A.: Baratzerako oso txarra! Otsailean hogeitau gurututan egon ginen hamabost bat egunetan eta aurteratu zen behar ez zena. Maiatza oso hotza izan zen. Gogoratzen naiz Itziarren bost graduko goizak izan genituela. Landaketekin asmatu ezinda ibili ginen. Uda ere antzera joan da: argitasun gutxi, euri asko, lurra goxatu ezinda, landareak sufritzen... Eta uzta eskasak. Gainera, kostan nabarmenagoa izan da, euri gehiago izan dugulako. Beste urteekin alderatuta, eskasagoa izan da. Ez bakarrik Euskal Herrian. Aurten justu Britainiako baratzezain batzuekin ere harremana egin dut eta eurek ere nahiko urte eskasa izan dute. Orain negutegian ahalik eta gehien aprobetxatuko dugu espazioa, negua ahalik eta ondoen pasatu eta datorren urtea hobea izango den itxaropenarekin.

I.A.: Esaten dute feria txarrik ez dela izaten denentzako eta nik firmatuko nuke aurtengoa moduko urte bat (barreak). Aurten eguzki oso gutxi izan da eta eduki dugu belarra ikaragarri. Kanpoak oso-oso berde egon dira, baina belar hori oso biguna izan da eta ardiek eta behiek beherakoa izan dute askotan. Baina egon da bolumena. Alde horretatik begiraturata, guretzako ez da izan hain urte txarra. Iazkoa okerragoa izan zen. Udaberria oso lehorra izan zen, eta ez genuen izan janik. Aurten, soberan. Makala, baina soberan.

Igartzten da azkenengo urteetan klima aldaketa. Ikusten ditugu neguak askoz ere suabeagoak direla. Urtarrilean, hogeitau gradu eta arbolak loretan! Aurtengo uda ere oso atipikoa izan da. Badago zerbait atzetik. Animalietan ere igartzten da. Aztoramen puntu hori... Hor badago aldaketaren bat.

Ofizioa beharko da horri aurre egiteko. Zuek non ikasi duzue ofizioa?

M.A.: Nik esango nuke ia dena etxean ikasi dudala, nahiz eta ez izan ekologikoan, lurrari lotutako ekoizpena egin izan delako etxean. Horrez gain, lurra hobeto zaintzeko formazio laburrak egin izan ditugu Biolur elkartearen bitartez, Fraisoron, baina oinarria etxean jaso dut.

I.A.: Gu biok baserrian jaiotakoak gara eta ume-umetatik ikusi dugu gure aurrekoek zelan egiten zuten lan. Ondorioz, ohitura batzuk hartzen joan gara umetatik. Niri tokatu izan zait gurasoekin lan egitea eta ohitu naiz euren moduetara. Ez da erraza izaten aitari edo amari esatea 'hau horrela egin behar dugu'. Aldaketa hori nahiko konplikatu izaten da. Nahikoa

“Amillubik ilusioa piztu du”

“Baratzegintza ekologikoaren arloan Amillubi proiektua nobedade garrantzitsua izan da.

Amillubi Zestoako Iraetako erriberan dagoen baserri bat da. Lurrak erosteko aukera sortu zen eta iaz diru bilketa bat egin genuen lur horiek erosteko, batez ere, ikusten genuelako Biolurrek dituen bi helburuei erantzuten ziela: alde batetik, erreleboaren gaiari, lehen sektore osoan daukagun arazo handi bati, eta bestetik, lurra bilatzeari. Aliatu dezente lortu genituen eta bailarako udalen laguntzarekin bi pertsona jardun erdiz liberatzea lortu genuen. Orain, abenduaren 1ean, beteko da urtebete proiektua plazaratu genuela. Bide onean goaz. Oraindik ez daukagu lurrak erosteko diru dena bilduta, baina gehiena bai, eta lurra erabiltzen hasita gaude: udan baratzezinok porrua egin dugu, okinek garia egin nahi dute, babarruna ere landatu genuen, baina eguraldiagatik ez da ondo joan... Asmoa da zati batean proiektu finko bat garatzea, baina zehazteko dago eraikina eta lurrak nola erabiliko diren. Normalean lehen sektoretik albiste grisak datoz eta ikusi dugu proiektu honek ilusioa piztu duela. Baditu aukerak zabalteko eta ilusio horri helduta goaz aurrera”.

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA

diskusio izaten dira. Nik ere oro har etxean ikasi dut baina gero ikasketak egin nituen Fraisoron, hainbat ikastaro. Ondo etortzen da ikustea besteek zer egiten duten, gutxienez jakiteko zer ez den egin behar. Munduari ireki eta ikusi zer dagoen. Makinaria aldetik, informatika aldetik, eguneratu egin gara gu ere.

Zer egiten zaizue zailena?

M.A.: Lagun batek esaten zidan: “Ez dago landaketa zailik!”. “Zaila dena da denak batera egitea”, esan nion. Batzuetan frustrantea egiten da badakigulako nola egin eta ez garelako iristen egitera. Argi daukagu eguraldiak asko eragiten digula baina horren aurka egiterik ez daukagula. Lagatzen duenean, egin dezakegu, eta ez duenean lagatzen, ez.

Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da eta horretan jartzea asko kostatzen zait. Nik erabaki dut nire lana izatea lurrari lotua eta alde txarrak onartzen ditut, baina gero inposatzen dizkigute kanpotik beste gauza pila



bat bai edo bai ikasi behar ditugunak, eta ikusten duguna da beste ofizio batzuetan ez dituztela halako lan desberdinak egin beharrik. Esango nuke autonomo lan egiten dutenei lotuta dihoan zerbait dela.

I.A.: Nik okerren daroatena da nire eskuetatik kanpo gelditzen den hori. Adibidez, gaur hamabost egun, Gipuzkoan mingain urdin positibo bat antzeman zuten, eta orain, behartzen gaituzte ardi denak bakunatzera. Gure kasuan, pasa den astelehenean bakunatu genituen eta izan genituen hainbat abortu, hil zitzaigun ardi bat... Badakigu zein diren bakunaren ondorioak, baina ez dakigu gaitzak zer sortzen duen. Gaitza ez dugu ezagutzen. Horrelako beste hainbat gauza daude goitik agintzen dizkigutenak eta behartuta gaudenak betetzera. Beste adibide bat da Ticket Bai. Nire amak laga egin ditu lehen egiten zituen hainbat lan. Beste lan bat eta beste kostu bat gehiago. Horrek eskema denak apurtzen dizkigu.

Bestalde, aurreko urtean, oso gaizki ibili ginen txakurren gaiarekin. Gero eta txakur gehiago dago



eta nik ondo ikusten dut, baina tentuz jokatu behar da. Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun. Sekulako inpotentzia sentitzen dugu. Deitu Udaltzaingora, deitu ertzainei, jarri salaketa eta erantzuten digute ardiak hobeto zaintzeko.

Badakigu gure eguneroko lana zein den, baina kanpotik datozen lanek, burokratikoek, dela mingain urdinaren gaiak, txakurrenak... Horiek sortzen didate niri kezka handiena.

Eta alderantziz, zer da gehien estimatzen duzuen?

M.A.: Berez uzta jasotzeak izan beharko luke, baina normalean bilketa ez da nire lan gogokoena izaten, aurten uzta hobeak gustura bilduko nituzkeen arren. Egunerokoan lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan: mugikorra alde batera laga, landareak nola dauden begira jarri... Bakardade momentu horiek.

I.A.: Bai, gure ofizioan momentu asko pasatzen ditugu bakarrik. Niri animalia artean ibiltzea asko gustatzen zait eta horrek asko betetzen nau. Arku-meak jaiotzea... Azkenengo urteetan, zortez, nahiko

ondo joan zaigu txapelketetan, eta jendeak zoriontzen gaituenean, pentsatzen dugu: “Zeozero ondo egiten dihardugu”. Eskerrak!

Ondo egiteari eta kalitateari begira, zer da zuek bereziki zaintzen duzuen?

M.A.: Gure oinarria lurra zaintzea eta hobetzea da, eta gero, jatekoaren zaporea zaintzea eta jaten duguna garaikoa izatea. Haziak eta landareak lortzeko, berriz, gertuko sarea baliatzen dugu.

I.A.: Gu ez gara gai Gaztelako jendearekin bolumenean lehiatzeko eta, beraz, egin behar duguna da merkatuan bereiztu eta erosten duen horri erakutsi lurrari lotutako nekazaritza edo abeltzantza egiten dugula. Nire ustez, jende batek gero eta gehiago begiratzen dio erosten duen produktuari eta horrek ingurumenean duen eraginari.

M.A.: Nik ez dakit. Batzuetan iruditzen zait desinformazio handia dagoela, eta jendeak, amets batean bezala, uste duela edozein saltokitan topatzen dituen barazki freskoak oso kilometro gutxira ekoiztu direla, baina ez. Esango nuke jende askok ez duela pentsatu ere egiten, batez ere, barazkiei begira. Ez



dute usaintzen elikagaien industria nondik nora doan.

I.A.: Pentsatu behar dugu jaten dugunaren %15-25 bitartean ekoizten dugula hemen. Gainerakoa kanpotik dator. Eta etorri beharrean dago, bertan gero eta gutxiago sortzen dugulako.

M.A.: Hogeita bost esan duzu, baina ez dakit inork ongi kalkulatu duen, nik %4 ere entzun izan baitut.

I.A.: Jakina, ni ari nintzen haragi sektoreaz...

Zuek nola saltzen duzue? Zuzenean ala zeharkako bideak erabilia?

M.A.: Guk hiru bide ditugu. Bata, merkatua, Deban. Normalean, astean bitan joaten gara. Kontsumo taldeak ere baditugu, taldetxo bat Deban eta beste bat Eibarren, eta denda txikietan ere saltzen dugu. Herriko bi dendatan eta jatetxeren batean ere bai. Azoketara joateari utzi egin genion. Lehen igual bazen urteko uzta saltzeko leku bat, baina orain gehiago da eskaparismoa eta guri lan handia eskatzen digu. Osteko juerga izaten da baloratuena.

I.A.: Bai, askotan feriak hala izaten dira. Jai baten parte izaten gara gu ere. Gure kasuan, azokak ematen digu aukera bezeroei produktua aurkezteko eta azaltzeko. Gainerakoan, guk saltzen dugu denda txikietan. Ehun puntutan saltzen dute gure gazta. Denda handiekin ere egiten dugu lan pixka bat,

Eroskirekin eta BMrekin. %85 saltzen dugu Gipuzkoan eta Bizkaian eta Espainian ere saltzen dugu zeozer. Etxetik bertatik ere saltzen dugu zerbait eta gero feria konkretu batzuetan: Elgoibarren abuztuan, Idiazabalen eta Mendaron maiatzean... Gehien-gehien, dendetan, baina.

Begia Debabarrenean jarrita, zelan ikusten duzue lehen sektorea bailaran?

I.A.: Ni hasi nintzenetik, uste dut joera beti izan dela negatiboa. Esango nuke gurasoen partetik jaso dugun mezua beti izan dela joan baserritik, ikasi edo hasi tailerrean lanean. Tendentzia horrek jarraitzen du gaurdaino. Sumatzen da jende gazte bat ekiteko ilusioz, baina hasierak oso zailak dira. Lurrarekin arazo handia dago, sekulako prezioa ezartzen diogulako. Elgoibarren ez da jenderik gelditzen lehen sektorean.

M.A.: Nik batzuetan esaten dut Iparraldera joatea mozkorraldi moduko bat dela, han laborari eta abeltzainek harro esaten dutelako beraien bizibidea zein den. Soldata ez da iristen funtzionario batenera, baina ez daude hain urrun gizarteko batezbestekotik. Beste egoera bat da.

I.A.: Nire ustez badago alde handi bat. Hemen gaztandegi bati eskatzen zaio Garcia Vaqueroren adinako azpiegiturak izatea. Ostera, joaten zara Iparral-



dera eta ikusten duzu artzai bat gazta egiten, txukun, txabola batean eta gastu ekonomiko oso txiki batekin; berak saltzeko baime-na dauka eta guk ez. Esan behar da baita ere gure aldean askoz ere gehiago saiutzen direla borrokatzen han. Gu beti banatzen gara, eta bakoitzak bere gerra egiten du. Frantziako estatuarekin konparatuta, esango nuke oso atzera gaudela.

Instituzioei zer eskatuko zeniekete?

I.A.: Entzutea eta gure iritzia kontuan izatea, iristen direlako hainbat gai eta beti delako Europak agindu duela edo Ministerioak... Beti da goikoren batek agindu duela eta bai edo bai bete behar dugula; guk esaten dugunak ez du ezertarako balio.

M.A.: Nekazaritza ekologikoaren kasuan, existitzen garena kontuan hartzea. Oso eremu eta zenbaki txikiak maneiatzen ditugunez, ez gaituzte kontuan hartzen. Inbertsio handietarako tendentzia egon da eta

“Azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu”

Gaztagintzan markek garrantzi berezia dute, ezta?

"Idiazabalen barruan ehun eta zazpi ekoizle gaude. Gehiengo handi bat izendapen horren barruan gaude. Hor bakoitzaren markak badu bere garrantzia. Guri azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu, eta horregatik, jende batek Idiazabal gazta bilatzen du, baina beste jende batek bilatzen du Mausitxa. Horrek aukera bat ematen du merkatuan posizionatzeko. Orokorrean, nahiko ongi ari gara saltzen. Iaz Idiazabal sor-marka gaztarik gabe geratu zen eta aurten ere martxa berdinean doa.

Orain jatorri izendapenaren barruan daukagu Europatik datorren lege bat. Idiazabal gaztak izan behar du Gipuzkoa, Bizkaia, Araba edo Nafarroan egina, ardi latxaren esnearekin egina eta gutxienez izan behar du bi hilabeteko ontze prozesua. Orain, horrez gain, ardi horrek jaten duenak ere lurralde horretakoa izan behar du. Denok ez dugu berdin ikusten. Artzain batzuek jo dute ekoizpen intentsibora, bolumen handiagoa ekoiztera eta ardientzako erosten duten ia jateko dena kanpotik ekartzen dute. Dira ardi batzuk ia eguzkirik ikusten ez dutenak, urteko zatirik handiena ikuilu barruan ematen dutelako. Gureak urtean zortzi hilabetez kanpoko belar hutsarekin elikatzen dira. Orain, gehienezko kopuru batzuk ezarri nahi dituzte, eta eztabaida sortu da geure artean. Ez dakit zertan amaituko den".

IÑAKI ANSOLA SALEGI



zentralizatzea ere bai. Ez dute baserrien galera gelditu, joera egon delako pentsatzea zenbat eta gutxiago eta handiagoak egon, hobe zela. Berez, tendentziak kontrakoa izan beharko luke: izan behar gara asko, eremu txikiekin edo taldetan batuta. Bakardadea bilatua bada, ederra da, baina beste aukerarik ez daukazunean, ez da hain ona. Horregatik ari dira sortzen ekoizle eta herritarren arteko formulak. **Nola ikusten duzue jarraipena epe ertain edo luze?**

I.A.: Ni Diego Simeone modukoa naiz: partidaz partida. (Barreak)

M.A.: Aurtengo urtea oso gogorra egin zait, eta kanpoan ordu batzuk lan egiten hasi beharko nintzela pentsatzera ere iritsi naiz. Nekazaritza ekologikoan aitzindari izan zen Lapatza baserrikoak esan zidan: "Eutsi egin behar da!".

Negutegi batzuk gehiago behar ditut. Gaur egun, azaleraren %10a da negutegia. Orokorrean gutxi da eta, aukera izanez gero, beste negutegi bat jarriko nuke, eguraldi txarra egiten duen egunetan ere lan egin ahal izateko.

I.A.: Nik orain daukadanari eustearekin nahikoa lan izango dut. Gurasoak adinean aurrera doaz eta euren eskulana egiteko jendea topatzea ikaragarri kostatzen da. Gero daude hurrengo belaunaldikoak; ia horiek zer egiten duten. Ni, etxe honetan, zortzigarren

belaunaldikoa naiz eta azkena izateak ere pena emango lidake, itzelezko pena. Ni ez noa seme-alabei presiorik sartzera, baina ia euren zer erabakitzen duten. Gainerakoan, lehengo horretan jarraitzea izango litzateke helburu printzipala.

Laburrean

Artzain ona izateko garrantzitsuenak?

I.A.: Ardi onak izatea (Barreak).

Baratzezain ona izateko?

M.A.: Arreta handia jartzea.

Miresten duzue...

I.A.: Gure ardi arraza: Latxa.

M.A.: Gipuzkoan ekologikoan hasi zirenak.

Gazta mota bat?

I.A.: Gazta urdina.

Barazki bat?

M.A.: Aza.

Azoka bat?

I.A.: Elgoibarko Gabon Zaharretakoa.

M.A.: Azpeitikoa.

Erreminta bat?

I.A.: Artzain-makila.

M.A.: Labana.



Aritzmendi frontoian Barbie panpina.
Argazkilaria: Klemen Corredera.

“Neure buruari eta alabari erakutsi nahi diot gure bizitza aurrera ateratzeko gai naizela”

Mika Xavier Ribeiro · Jostuna



Instagram, Facebook eta beste hainbat sare sozialez gain, Mallabiko kaleetan ere ikusi dugu Mika jostunaren iragarkirik. Brasilen sortua, lau urteko alaba Ellierekin bizi da Mallabian eta josteko tailertxo bat du bere etxeke gela batean. Bere proiektua da eta seriotasun handiz dihardu lanean alaba eta bien bizimodua aurrera ateratzeko.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Nondik datorkizu josteko afizioa?

Brasilen amama, ama eta izeko jostunak ziren, eta oraindik jostunak dira. Ama gutxiago seme-alabak zaintzen egon delako gehiago, baina berak erakutsi zidan josten. Ikasketak ere egin nituen korte eta konfekzioan, patronajea eta diseinuan. Hemen batez ere konponketak egin izan ditut eta horrek nire alde kreatiboa lantzen erakusten dit arropa bati beste erabilera bat ematerako orduan.

Eta arropa hain merke saltzen den sasoi honetan, jendeak zuregana jotzen du...

Berez jostunena ez da oso ondo ordaindutako lan bat egia esan, eta ez zaio behar besteko balioa ematen. Baina nik ulertzen dut merke erosteko dagoen joera, dendetako prezioa ordaindu ezin duenarentzat batez ere. Baina jakina da lan esklabua dela, umeek egiten dutena askotan eta sustantzia kimiko kaltegarritz beteta daudela arropok. Nik egiten ditudan konponketetan detaileak edukitzen saiatzen naiz, bezeroak ikus dezan bere arropa errespetuz eta maitasunez tratatzen dudala, nahiz eta etxean egiten dudan lan eta nire jarduera txikia den. Idatzitxo bat oparitzen diot bezero bako-



tzari nigan konfiantza izateagatik eskerrak emanaz. Nire tailerraren irudia eta nik adierazi nahi dudana, alaba aurrera ateratzeko lanean ari den ama ezkongabe bat naizela da. Neure buruari eta alabari erakutsi nahi diot gure bizitza aurrera ateratzeko gai naizela.

Sare sozialetan ikusi dugu tailerra atontzen ari zarela...

Amarekin hitz egin dut telefonoz gaur eta negarrez esaten zidan, "Mika, nik lortu ez nuena lortzen ari zara!". Hori zen nire proiektuetako bat aurtengo urtean, eta horretan dihardut, pintatu eta hobeto egituratu bezeroak niregana datozenerako, gustura sentitu daitezten. Esku artean darabilan beste proiektu bat bezeroaren etxera joateko zerbitzua da. Laugarren pisu batean bizi naiz eta ez daukagu igogailurik, horrela ezinduta dauden pertsoneri eskeini diezaieket egiten dudana.

Eta bihotz formako kuxinak? Zer dira?

Opari afektiboak deitzen diet. Lagun bati ama hil zitzaionean ez nekien zer esan eta bere amaren arropa bat eskatzea pentsatu nuen. Bihotz formako kuxin bat egin nion, poltsiko eta guzti. Poltsikoan euren argazki bat sartu nuen. Amaren jantzi bat zen, bere usaina duena eta arropa hori jantzita gogoratuko du ama urte askoan. Era honetako gauzak josten lan egitea lortuko banu, oso eskertuta egongo nintzateke. Askok gustatzen zait opari afektiboak egitea, jendearentzat esanahi berezia eduki dezaketen gauzak egitea. Esku artean beste horrelako lan bat daukat eta oraingo honetan ordaindu egingo didate, hori da nire hurrengo proiektua.

Maitasuna adierazteko duzun era da orduan joskitza. Guri maitasun hori jasotzea kostatzen al zaigu, euskaldunoi?

Piska bat bai, ja ja. Brasildarra naiz, nahiko intentsoa naiz eta ohitzen noa piskanaka zuen izateko erara. Baina oso gustura bizi naiz Mallabian. Nire alabaren

"Brasildarra naiz, nahiko intentsoa, eta ohitzen noa piskanaka euskaldunen izateko erara"



birraitona Donostiakoa zen, Garmendia abizenez, eta nire bikotea zenak Euskal Herria ezagutzera etorri nahi zuen. Astiro-astiro ohitzen noa hemengo kultura, hizkuntzara... Euskara ikasten ere egon nintzen hiru bat hilabetez, baina gero lanean hasi behar izan nuen. Badaukat euskaltegira bueltatzeko asmoa, nire alabaren kultura delako eta nagusiagoa denean ikasketekin laguntzea gustatuko litzaidakelako. Jendearekin ere saiatzen naiz hitz gutxi batzuk euskaraz esaten, ikus dezan errespetatzen dudala bai hizkuntza eta bai kultura. Banandu nintzenean Brasilerara bueltatzeko ere egon nintzen, baina hemen geratzea erabaki nuen hau ere nire alabaren kultura delako. Beragatik bizi naiz hemen.

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Bitsi-denda Tailer propioa Erlaia-denda

Senén
1978

Disenatuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

Son Pelayo zeharbidetako 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Asteunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

Hainbat auzotara sartzeko errepideak asfaltatuko dira datozen asteotan

Aitxu, Zengotita, Gereaa (Trabakuan dagoen bidegurutzetik hasita) eta Goitaa auzoetara sartzeko errepideak asfaltatzea erabaki du Mallabiko Udalak datozen asteotan. Horrekin batera, Abendibar-Etxebarria baserrira sartzeko bidea ere konpondu eta asfaltatuko da, "egun dagoen pistaren egoera oso arriskutsua delako", jakinarazi dute Udaleko arduradunek. Lan hauek 85.000 euroko aurrekontua izango dute, eta urtea bukatu baino lehen amaituta egotea aurreikusten da.




Trabakuan dagoen bidegurutzea da Gereaa auzora joateko abiapuntua, eta beraz asfaltatuko da, beste sarbide batzuekin batera.

Skate park-a eta BTT-BMX pista eraikiko dira Zubitegi Kirol Parkeko bigarren fasean

Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, Zubitegi parkeko bigarren faseko obrak laster hasiko dira. Obra hauei esker, skate park bat eta bizikletan ibiltzeko BTT-BMX pista eraikiko dira, eta ondorioz, parkearen egungo aisialdi eskaintza zabalduko da. Skate parka bi zatitan egongo da banatuta: park estiloko gunea (elementu ezberdinak izango dituena) eta bowl-a, skatearekin, patinekin eta scooter patinetekin zein bizikletarekin erabili ahal izango dena. BTT-BMX pistari dagokionez, "campillo" estilokoa izango da, azaldu dute Udaleko arduradunek, eta helduei zuzenduta egongo da: "Hiruzpalau bide eraikiko dira aldapa eta peralte ezberdinekin, saltoak egin ahal izateko, eta behean lurra izango du, hau da, ez da asfaltatuko". Obra hauek 400.000 euroko aurrekontua dute, eta Udalak 96.000 euroko dirulaguntza jasoko du Bizkaiko Foru Aldunditik. Obrek zortzi hilabeteko iraupena izango dute, beraz, udaberrian bi azpiegitura hauek martxan egotea espero dutela adierazi du Mallabiko alkatea den Igor Aguirrek.

Zubitegi parkea



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

LA FORJA KAFETEGIA

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

quetzal
[arropa, bitxiak, oparriak...]

www.quetzalmoda.com
Zubiaurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065

Estibalitz Gonzálezek parte hartu du aurtengo Astola aldizkarian



Astola aldizkariako erredakzio taldeko kideak eta aurtengo alean parte hartutako idazleetako batzuk. TXELU ANGOITIA

Gerediaga Elkartek azaroan kaleratu du Durangaldeko ondarea eta historia batzea xede duen *Astola* urtekaria. Tokian tokiko bederatzi artikuluz osatuta dator aurtengo zenbakia, tartean gure bailaratik erraketan jokatzera irtendako emakume erraketisten berri ematen duena. "Durangaldeko erraketistak, ahaztutako pilotari aitzindariak" izenburuko artikulua osagarri, Durangaldean jaio edo bizi izan diren 31 pilotari profesionalen izenak batu ditu Estibalitz González ermuarrak: "Pilar", "Paquita", "Consuelo" eta "Rosita" mallabitarrak, eta "Lucia", "Ermua I", "Ermua II", "Irene" eta "Poli" ermuarrak, besteak beste. Astola 7 eurotan saltzen da, eta herriko liburu-dendetan zein Durangoko Azokan erosi ahal izango da.

Momak eta Painapple taldeek lehen singlea eta diskoa kaleratu berri dituzte, hurrenez hurren

Jon Andoni Moreno ermuarra buru duen Momak taldeak lehen singlea kaleratu berri du, *Itzuliko naiz* izenburuean (Spotify plataforman entzun daiteke). Gainera, taldeak jakinarazi duenez, datorren astean estreinatuko da abesti horren bideoklipa, Lobiano Kulturgunean grabatu dena. Berau grabatzeko, Momakek ondoan izan du ikus-entzunezkoen ekoizle den Jagoba Ormaetxea bilbotarra; eta Jon (Mendi productions) grabazioan eta montajeon. Margolana, berriz, artista plastikoa eta makillatzailea den Amaia Lejarreta durangarrak egin du.



Momak taldearen *Itzuliko naiz* abestiaren bideoklipetik ateratako irudia. IÑAKI MORENO

Bestalde, Debabarreneko herri ezberdinetako kideak dituen PainApple taldeak lehen diskoa kaleratu du azaroaren bukaeran, *Bitter* izenekoa (plataforma digital guztietan entzun daiteke).



Aurkezpen kontzertua Madrilen egin zuten eta, sare sozialetan jakinarazi dutenez, laster Euskal Herrian joko dute zuzenean.



PainApple taldeak kontzertua eskaini zuen Madrilen azaroaren 23an. PAINAPPLE


OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBALEKU 3 - 943 170565
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa
GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 - Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

Cosme Zubizarreta, Ermuko Biribilketaren konposatzailea

Santa Zezilia Bandaren sorreraren 110. urteurrenaren harira, sasoi baten bertan musikari eta zuzendari aritu zen gizona ekarri nahi izan dugu orriotara, Cosme Zubizarreta, *Ermuko Biribilketa* lan entzutetsuaren sortzailea ere izan zena.

Testua **ESTIBALITZ GONZALEZ**


Ermuko Guencallen jaio zen 1893ko irailaren 26an. Aita, Jose Luis Zubizarreta Sodupe, azkoitiarra zen eta ermuarra ama, Ageda Unamuno Ormaetxea. Lanbidez armagina zen aita eta bide berdina hartuko zuen berak hasiera baten. 1920an Jose Mari Iriondorekin arma motzak egiteko tailer bat sortu zuen, baina sektoreak pairatzen ari zen krisi eta zailtasunei erreparatuta, 1939an metalgintzarekin ere zerikusia zuen Zubi-ondo enpresa sortu zuten, erremin-tak eginez.

Irulitxan, Palazio Zaharreko behekalde baten pistolagintzan hasi baziren ere, gerora bestelakoak egiteari ekin zioten Irulitxako trenbidearen erromadak pasatuta jarri zuten tailerrean: mailukak, giltza ingelesak, aliketak... Banaka batzuekin hasitako lan-jarduera hark 400 behargin izatera iritsi zen.

Zuzendari

Tailerduna izatetik aparte musi-

koa zen, klari-
n e t e a
j o t z e n
z u e n, e t a l u-
z a r o a n S a n t a Z e z i l i a B a n d a z e i n e l i z a k o
k o r u a z u z e n d u z i t u e n. B a n d a r e n g i d a r i t z a S a n t i a g o
M a l l a g a r a y e t a P a t r i c i o G o r o s a b e l e n o n d o r e n h a r t u z u e n, e t a
b e r e l e k u a b e t e k o z u t e n L u i s A l b i z u k l e h e n e n g o e t a M o i s e s
G o r o s a b e l e k g e r o. 1 9 2 5 e k o a r g a z k i b a t e n, j e n d e m u l t z o b a t e n
e r d i a n a g e r t z e n d a, b a t u t a e s k u a n, p l a z a n e g i n d a k o a n t z e r k i
e m a n a l d i b a t e n p a r t e h a r t u t a k o m u s i k a r i a k z u z e n t z e n. U r t e t x o



**Ermuko Biribilketa,
"Re si re si" bezala
ezagutzen dute
musikari askok**



batzuk eman zituen zuzentze zereginotan.

1921ean Balbina Garro Aranbururekin ezkondua, lau seme izan zituen bikoteak: Jose Luis, Antonio, Pedro eta Alfonso. Hauek ere musika izango zuten zaletasun: Antoniok tronboia joko zuen Bandan eta Pedrok saxofoi tenorea.

Konposatzaile

Azken honi egindako bideo grabazio baten esaten duenaren arabera, "soldautzia Donostian egin eban, eta hantxe soldau euala musikia ikasi eban". 1939ko gerraren ondorioz, kartzelan egon zen Bilbon eta "denporia emoteko pare bat, hiru bat kantatu egin zitxuan Bandiandako, tartean Re si, re si, re mi... notak zitxuan" kontatzen du Pedrok.

Ermuko Biribilketa legez ezagutzen dugun melodia



Zubizarreta Bandaren zuzendari lanetan plazan, 1925ean

eta Cosme Zubizarretaren izena gaur egunera arte ekarri duena, hasierako lau nota horietatik deitzen zioten musikariek, notok kantatuz abestia ikastea erraztuz, eta *Re si re si* izango zen bere izen musikala. Santa Zezilia Bandaren errepertorioan ezinbesteko bihurtu zen eta 1972an honen desagerepenarekin utzi zitzaion jotzeari.

Gazterik alargunduta, azken urteak Donostian eman zituen Cosmek eta bertan zendu zen 1979ko maiatzaren 28an, bere Bandako lagunek egindako omenaldi hunkigarria jasota.

Hamarkada luzez ahaztuta egon ostean, Biribilketa-ren partitura bat azaldu zen eta Alboka Musika Eskolako arduradunen ekimenez apurka-apurka zabaltzen joan zen: txistulariek, trikitilariek, Alboko Musika Eskolaren Bandako musikariek... kalez-kaleko jira-buel-tetan zein Santa Zezilia egun inguruko emanaldietan presente dute beti. Izan dadila betirako!



Erdian Cosme Zubizarreta, omenaldia egin zioteneko egunean

BAR
JUBILETXE
ERMUA

Hemen eskatu!

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197

Otro Plan

como en casa

Erreserbak: 644 340 754

Barnetegia Lekeition: esperientzia ahaztezina

Azaroaren hasieran, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleek 4 egun ahaztezinez gozatu dute Lekeition, etxetik kanpo egindako 3 gauekin. Esperientzia aberasgarria izan da, jarduera zirrarragarri eta hezigarriz betea. Egindako jardueren artean, hauek nabarmentzen dira: tirolinekin egindako abentura-parkea, arraun egitea, ilunabarra esploratzeko linternak dituzten mendira egindako txangoak, eta bisita kulturalak itsasargira, arrantzaleen kofradiara eta haize-errotara.

Egun hauek zientziekin lotutako ezagutzak indartzeko ez ezik, elkarbizitza eta euskarazko komunikazioa sustatzeko ere balio izan dute, bai euren artean, bai helduekin. Primeran pasatu dute!



Euroeskola: egun baterako europarlamentari izan



Joan den hilabetean 4. DBH-ko ikasle talde batek Euroscolla jardunaldieta parte hartu zuten Estrasburgoko Europar Parlamentuan. Bertan Europar Batasunaren zereginak eta barne funtzionamendua aztertu zuten eta gaur egungo Giza Eskubideen egoerari buruzko ezta-

baidan parte hartu zuten beste herrialde batzuetako ikasleekin batera. Urtero lez, gure 1. DBH eta 3. DBH ikasleek Gasteizera eta Madrilera egin zuten eskola aktiboko irteera azaroaren 11tik 15era.

Osasuna izatea, guztion ardura

Urrian eta azaroan zehar, osasunarekin harremana duten ekintza ezberdinak jorratu ditugu eskolako ikasle guztiok (HHTik Batxilergora arte), besteak beste: nutrizioarekin lotutakoak, kirolarekin, osasun mentalarekin, ludopatía eta drogen prebentzioa... Ekintzen artean hauek egon dira: Mac Sonrisas, Antzerki Fórum eta Googaz. Horri esker osasunaren garrantziaz konturatu gara. Zaindu gaitezen guztiok!



	ORBE TOLDOS Y PERSIANAS
Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak	
Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)	Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com

mari asun LORADENDA	
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379	



BEGOÑA FERNÁNDEZ ALCALDE

ERMUKO KOORDINADORA FEMINISTAKO KIDEA

Konponbidea ez bazara, arazoa zara

"Arazo horiek publikoki salatzen dira, baina, paradoxikoki, sistema elikatzeko eta iraunarazteko erabiltzen dira"

Bizitzako arazo unibertsal kezagarrienak zeintzuk diren emakumeei galdetuko bagenie, ziur asko bata indarkeria matxista dela erantzungo lukete eta bestea emakumeen bizkarren gaineko bizitzaren zaintzaren zama. Karga handiak!

Biek ezaugarri berberak dituzte:

- emakumeak diskriminatzen dituen botere-sistema batean dute jatorria
- gizonek sortzen dute
- izugarritzko kaltea eragiten dute emakumeengan eta neskeengan
- erabat normalizatuta daude gure eguneroko bizitzetan

Gure jendartean arazo horiek publikoki salatzen dira, baina, paradoxikoki, sistema elikatzeko eta iraunarazteko erabiltzen dira. Bizi-kontraesan horretan, gizon gehienek sistemaren konplize izaten jarraitzen dute, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Batzuk kexu dira:

"Ah, baina ni ez!!, nire laguna ez!!, nire aita ez!!, nire senarra ez!!"

Arazo horietan faktore indibidualak zein kolektiboak daude jokoan. Horregatik, konplizitatearekin amaitzeko, konpromiso eta erantzukizun pertsonalak eta kolektiboak hartu behar dira nahitaez.

Zigorgabetasuna eteteko ordua da. Bada garaia erakundeek dagozkien konpromisoak har ditzaten; izan ere, indarkeria sortzeaz gain, pertsona guztientzako zaintza sistema duina, publikoa eta komunitarioa lortzeko erantzukizun soziala beren gain hartzea saihesten dute. Eta zu, gizona zarenez, bada garaia interpelatuta sentitzeko, nahiz eta zu ez izan aita abusatzailea, lagun babosoa, senar bortxatzailea, neba arduragabea...

Konponbidea ez bazara, arazoa zara. Ireki begiak! Horren aurrean, mobilizatzeke gai al zara? Prest al zaude zure jokabideak berrikusteko, aliatu egiteko eta errealitate berri bat eraikitzeke emakumeen ondoan?

Lotsa eta beldurra, emakume handi askori esker, lekuz aldatzen hasiak dira. Herri berri bat abian da, zaintzen herria, hain zuzen ere.

Argiaren faktura aztergai

ETXEKO FAKTURA ELEKTRIKOA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Azken urteetan, etxeoko faktura elektrikoak aldaketak jasan ditu eta gaur egun dokumentu konplexu eta ulergaitza bihurtu da herritarrentzat.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundearen arabera, kontsumitzaileen %11k soilik ulertzen du. Izan ere, fakturan hainbat kontzeptu aipatzen dira, baina hauek ulertzeko oinarritzko ezagutza tekniko batzuk izan behar dira. Ondorengo artikuluan, etxeoko faktura elektrikoak ulertzeko gakoak izango ditugu hizpide.

Kontratutako potentzia eta energia kontsumoa

Kontratututako potentziak aldi berean martxan jarri ditzakezun aparatu elektriko kantitatea mugatzen du; KiloWatt (kW) da bere unitatea. Kontsumitutako energiak, berriz, erabilitako energia kantitatea zehazten du eta KiloWatt ordu (kWh) da bere unitatea. Ordutegi-tarifak edo erabilera-denboraren tarifak eguneko orduaren arabera aldatzen dira. Momenturik garestiena goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 20:00etara bitartekoa izan ohi da. Edonola ere, badira kontratuak eguneko ordu guztietarako tarifa bera eskaintzen dutenak.

Merkatu erregulatua eta librea
Elektrizitatearen sektorean bi merkatu mota daude,



erregulatua eta librea eta kontsumitzaileak kontratatzerako momentuan, bi merkatu horien artean aukera dezake. Argiaren merkatu erregulatuak Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa eskaintzen du (PVPC). Tarifa honek merkatu elektrikoak araututako eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gainbegiratutako prezioak eskaintzen ditu. Merkatu librean, berriz, argia, gasa eta mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa ugari daude, eta beraiek markatzen dituzte prezioak.

**KONTSUMITZAILEEN
ERAKUNDEAREN
ARABERA, %11K SOILIK
ULERTZEN DU
ARGIAREN FAKTURA**

Faktura murrizteko neurriak

Faktura murriztu nahi baduzu, ondorengo ekintza hauek har ditzakezu kontuan: Etxetresna elektriko eraginkorrek erabiltzea (A etiketa); deskonektatu kargagailuak eta behar ez dituzun ekipoak; aprobetxatu argi naturala; berokuntzaren eta aire girotuaren erabilera erregulatzea; potentzia optimizatzea.

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia · Diputación Foral

 **Energia
bulego birtuala**

energia.debegesa.eus
agenda2030@debegesa.eus
943 82 01 10.

Fakturaren atalak

Kontratuaren eta titularraren datuak

Fakturazio datuak

Kostuen laburpena eta guztira

KOSTUEN LABURPENA

- Kontsumitutako energia
- Potentzia
- Zergak
- Zerbitzuak
- BEZ

Potentzia
Energia terminoa

Bono soziala

Zerga
Zerbitzuak
BEZ

Horniduraren bestelako informazioa

HORNIDURAREN BESTELAKO INFORMAZIOA

CUPS: Hornidura-puntuaren kode bateratuak argi eta garbi identifikatzen du instalazioa.

CONTRATO

Títular: XXXXXXXX Potencia: XXXX
 Dirección de suministro: XXXXXXXX Potencia vales: X kW

RESUMEN DE FACTURA

PERIODO DE FACTURACIÓN: XXXX
 DÍAS FACTURADOS: X N.º FACTURA: XXXX
 FECHA DE EMISIÓN: Día/Mes/Año

ENERGIA: X €
 CARGOS NORMATIVOS: X €
 SERVICIOS Y OTROS CONCEPTOS: X €
 IVA Reducido (7): X €

TOTAL: XXXX €

FECHA PREVISTA DE COMBO: Día/Mes/Año

¡LE PODEMOS AYUDAR!

- www Iberdrola.es
- clientes@iberdrola.es
- APP Iberdrola Clientes
- Atención al Cliente: 900 225 235
- Notificación de averías en su zona: 900 717 171
- Oficina de Atención Iberdrola: CALLE JUAN CRUCIA KALEA 11, 28002 EBILAK, CALLE ANDREA EN CARLOS MARX KALEA 3, 20000 ARRAIATU/MONDRAIGON
- Reparaciones eléctricas del hogar: 900 22 45 22
- IEC, Iberdrola Electricas Integragen, S.A.U.

KONTRATUAREN ETA TITULARRAREN DATUAK

- Titularra
- Horniduraren helbidea
- Kontratutako potentzia
- Kontratu zenbakia
- Kontratuaren amaiera data

FAKTURAZIO DATUAK

- Faktura zenbakia
- Fakturazio periodoa
- Fakturatutako egunak
- Emisio data
- Epe muga
- Kobratze data
- Kontu korrantea

EVOLUCIÓN DE CONSUMO (kWh)

Consumo total de esta factura: X kWh
 Consumo medio diario en esta factura: X €
 Consumo medio diario en los últimos 14 meses: X €

DETALLE DE FACTURA

ENERGIA	Potencia facturada	Punto de suministro	Valor	Unidad	€/Wh día	€/Wh día
Total importe potencia hasta 09/02/2023	3.3 kW	1.1	1.1	1.1	1.1	1.1
Total importe potencia hasta 20/02/2023	3.3 kW	1.1	1.1	1.1	1.1	1.1

INFORMACION ADICIONAL

Información adicional: X €
 Impuestos y cargos: X €

BONO SOCIALA

Bonu sozial elektrikoa baliabide gutxiko familiei laguntzeko neurria da, energia merkeago saltzen baitaie. Gaur egun, energiaren sektoreko enpresa guztiek (banatzaileek, ekoizleek eta merkaturatzaileek) ordaindu behar dute; beraz, kontzeptu hori fakturretan kontzeptu gisa sartu da edo tarifetan txertatu da.

ZERBITZUAK

Kontagailuaren alokairua
 Behar den zerbitzu bakarra da, eta kontagailurik jabetzan ez dagoenean agertzen da. Prezio arautua du.

Merkatu librean ohikoa da beste zerbitzu batzuk kontratatzea; benetan beharrezkoa den baloratzen du, eta behar ez badu, baja eskatzen du, kosturik gabe noiz egin daitekeen berrikusi ondoren.

1954

E R M U A

Rosario Iriondo Mallabiabarrena euron Apraiz okindegiko ogi partiketak egiten horretarako erabiltzen zuen Elektrozikloan. Aita, Eugenio, Eibarren egon zen okin, Arraguetako okindegian eta San Andres eliz pareko Ermuarranean. Indalezia Mallabiabarrenarekin Ermura ezkontuta, 36ko gerra aurreko urteetan Sallabentzen jarri zuten okindegia eta senarraren Elgoibarko jaiotetxearen Apraiz izenetik deituko zioten. Prezintatu egin zieten gerra sasoian eta 1970an bota, autopistako sarrera egiteko



1961

M A L L A B I A



Argazki hau Zengoittek Beitia base-ri aurrean aterata dago 1961 urtean. Eibarko argazkilaria bat agertu omen zen Zengoitte auzora eta argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. Romana Pagate astoarekin agertzen da ganau jatekoak eginda, astoa alpapaz

kargauta. Bestalde, Segundo Agirrebeitia eta Jabier Gorrotxategik eskopetak lantzen egiten omen zuten lan baserrian: eskopetian baskulie lisotu egiten omen zuten. Haiekien batera ageri dira Eusebia Pagate, Maria Angeles Ayarzagüena, Maria Agirrebeitia, Roberto Angiozar, Cecilio Agirrebeitia, Jose Luis Agirrebeitia eta Mari Conchi Ayarzagüena. Aurrean agertzen den txakurrak Perrita zeukan izena.



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardinoa	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarineta	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

IRAGARKI LABURRAK

Neska eskaintzen da etxeak edo peorak garbitzeko, eta pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 686 52 0473, Maria.


Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. ☎ 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. ☎ 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 683 655.



Azaroaren 24an
Zorionak **Mikel**!!!! 7 urte ia da gure etxeko txikiak!!! Besarkada handi bat aita, ama, Ander eta etxeko denon partez!!!



Abenduaren 3an
Zorionak **Danel**! Oso ondo pasa zure 3. urtebetetzean! Segi hain alai beti eta ez galdu inoiz irrifar polit hori. Muxu zaparrada bat aita eta amaren partez!



Azaroaren 8an
Zorionak **Lucia**!!! Zortzi urte bete dituzu! Askok maite zaitugu, sorgintxo. Musu erraldoi bat amama, Libe, amatxo eta aitaxoren partez.



Abenduaren 16an
Zorionak **Gorka**! 9 urte haundi beteko dituzu! Segi beti bezain alai eta txintxo. Patxo haundi bat familia guztiaren partez.



Azaroaren 21ean
Zorionak munduko amatxo eta amamarik onenari. Askok maite zaitugu. Muxu haundi bat Itzel, Silvia eta Ikerren partez.

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
Y PLAN BARRERAKO
ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**Infreñu
Taberna**
Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com

KARABIXA
Egunero zabalik
08:30etik aurrera

KARABIXA KAFATEGIA

ileapaindegia
Silvia
peluquería
943 170474 688819336

30 ABENDUKO AGENDA

ZINEA

30etik 2ra:

"Jurado n° 2" +
"Amanece en Samaná"

7tik 9ra:

"Azken erromantikoak" +
"El método Knox"

14tik 16ra:

"Gladiator 2" +
"Verano en diciembre"

21etik 23ra:

"Wicked" + "Borgo"

28tik 30era

"Raqa" + "Emilia Pérez"
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 5:

"Salve María"

Hilak 12:

"El sueño del diablo"

Hilak 19:

"No other land"

Hilak 26:

"Góndola"

Ermua Antzokian. 20:30ean.

HAURRENTZAKO

ZINEA

Hilak 1:

"Guardianes de la Ópera"

Hilak 8:

"Liztor kapitaina"

Hilak 15:

"Harold y el lápiz mágico"

Hilak 22:

"Super Klaus"

Hilak 29:

"Vaiana 2"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 18:

Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Ermua Antzokian. Doan.

Hilak 21:

Blues kontzertua: El Oso de Benalúa y sus Sabandijas. 20:00etan. Lobiano Kultur-gunean. Sarrera: 10 €

Hilak 27:

Niño de Elche. 20:30ean. Antzokian. Sarrera: 12 €

ANTZERKIA

Hilak 6:

"Antígona", Sutegiren esku-tik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8 €

Hilak 13:

Bakarrizketa: "Tutum Platz", Jon Plazaola. 20:30ean. Antzokian. Sarrera: 10 €

Hilak 20:

"Lazarillo de Tormes", Rafael Álvarez "El Brujo". 20:30ean. Antzokian. Sarrera: 15 €

DANTZA

Hilak 19:

Txindurri taldea. 17:30ean. Ermua Antzokian. Doan.

Hilak 20:

Taupada Dantza Eskola. 19:30ean. Merkatu plazan.

ERAKUSKETAK

9tik 15era:

Argazkiak: "2024ko oporrak" lehiaketara aurkeztutako lanak. Lobiano Kultur-gunean.

16tik 29ra:

Margoak: Esteban Orozen lanak. Lobiano Kultur-gunean. Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara. Asteburuan 12:00etatik 14:00etara.

GABONETAKO HAUR KANPAINA

Hilak 14:

Ermuchef: Haurrentzako sukaldaritza ekitaldia. 16:00etatik 19:00etara. Plazan.

Hilak 24:

Olentzero eta Mari Domingi txikiren kalejira. 11:00etatik aurrera plazatik hasita.

Abenduaren 26tik

urtarrilaren 4ra:

Gabonetako haur parkea: puzgarriak, ludoteka, bideo-konsolak, jumping, tailerrak... 11:00- 13:00 eta 16:00-20:00. Sarrera: 2 €

Hilak 28:

Haurrentzako antzerkia: "Ali Baba", Borobil Teatroa. 17:00etan. Ermua Antzokian.

Sarrera: 4 €

Hilak 30:

Haurrentzako antzerkia: "Zimurren artean kontukantari", La Enana Naranja. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4 €

Hilak 31:

Olentzeroren kalejira. 18:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazatik.

Urtarrilaren 4an:

Gazteentzako kontzertua: "Goazen 11.0", Pausoka. 16:00 eta 18:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 6 €

Urtarrilaren 5ean:

Errege Magoen kabalgata. 18:00etatik aurrera. San Lorenzo ikastetxetik.

HAURRENTZAKO

BESTE EKITALDI BATZUK

Hilak 7:

Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Udal liburutegian.

Hilak 21:

Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Udal liburutegian.

BESTELAKOAK

Hilak 28:

Kanpai-jotze aurrerapenjaia. 17:00etatik aurrera. Plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



MALLA
file-apaindegia

Probaleku 8. behea © 943 17 18 50

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUE col.1665 EGOITZ FORMOSO col.1675



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



IR AZ

Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clincasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



LEIRE MAYORA
PODLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.



BIRZIKLATU

latak, brikak eta plastikozko
ontziak edukiontzi horian eta
egin bat ekonomia zirkularrekin



DebaBarrena
Denona da, izan garbi



ecoembes
Lankidetzaren indarra